

## 2. FITXA

# PARROKIA, PASTORAL ZONALDE EDO BARRUTIA

### I. TOPAKETAREN AURRETIK PRESTATZEKO

Gaia argitzeko, Gotzain jaunaren pastoral idazkiko 2.4. atala irakurtzea komeni da, “Lurralde berrantolaketa misiorako” (92-97 zenbakiak). Honetaz gain, gai honetan sakondu ahal izateko, eta denbora duzuen haiek, bibliografia gisa gomendatzen dizuegun 2020ko dokumentu hau irakurri dezakezue: “La conversión pastoral de la comunidad parroquial al servicio de la misión evangelizadora de la Iglesia”, Kleroarentzako Kongregazioak prestatua. Ondoko orrialdeetan ere, bigarren bilera honetarako oinarritzakoak diren edukiak dituzue, irakurri ahal ditzazuen.

### 1.- PARROKIA: ZER DEN ETA BERE MISIOA

- “Parrokia da kristau-fededunen harako komunitate jakina, Eliza partikularrean egonkorki eratua, zeinen zaintza pastoral -Goztzen diozesanoaren agintepean-baitzaio gomendatzen parrokoari, berorren artzain propio gisa. Zuzenbide Kanonikoaren Kodea. 515 § 1
- “Eliz komunioak, nahiz eta alderdi unibertsala beti berea duen, espresio ikusgarrien eta gertukoena parrokan dauka. Parrokia da Eliza tokian tokian eta azken mugetaraino presente egiteko modua; modu batean, parrokia bere seme-alaben etxeen artean bizi den Eliza da. Christefidelis Laici, 26. Juan Pablo II
- “Parrokia ez da zaharkitutako egitura bat; oso moldagarria delako hain zuzen ere, era oso ezberdinean gauzatu daiteke, horretarako beharrezko dituelarik Artzainaren eta elkartearen esanekotasuna eta sormena. Erakunde ebanjelizatzaile bakarra ez bada ere, eraberritzeko eta egokitzeko gai baldin bada «bere seme-alaben etxe-arte bizi den Eliza bera»[26] izaten jarraituko du. Familiekin eta herriko bizitzarekin egiazko harremana duela esan nahi du horrek eta ez dela bihurtzen jendearengandik bereizitako egitura zorrotz bat edo bere buruari begira bizi direnen aukeratu talde bat. Parrokia, Elizaren presentzia da lurraldean, Hitzaren entzuteko gune, kristau bizitzan hazteko, elkarriketarako, hots egiteko, karitate eskuzabalerako, gurtzarako eta ospakizunerako gune[27]. Bere jardueraren guztien bidez, ebanjelizatzearen eragile izan daitezkeen bere kide guztiak adoretzen eta hezten ditu parrokiak[28]. Elkarrean elkarrekin da, egarri direnak, bidean jarraitu ahal izateko edatera joaten diren santutegi da eta misio-bidalketa etengabe egiten deneko gune ere bai. Baina aitortu egin behar dugu, aztertze eta eraberritzeko parrokiei egindako deiak ez duela oraindik nahikoa fruitu eman, jendearengandik

gertuago egoteari dagokionez, komunio eta parte-hartze gune izateari dagokionez eta misioari erabat zuzenduak egoteari dagokionez”. Evangelii Gaudium, 28

- Eliz elkarte bizi eta egonkorretaruntz bidea egin behar dugu.

*Eraberrikuntza pastoral eta misiolariako orientabideak 2024-3-29:*

Misioa: parroki elkartearen indar, zabaltasun eta bitartekoen araberakoa da, jakina. Baina ona da elizbarrutiko parrokiaren egon behar luketen gutxienekoak ezartzea:

1.- Parrokia, bokazioz, **elkate ebanjelizatzailea** da: Ebanjelioa iragartzea dagokio (batzuetan presentzia bera ebanjelizatzailea delarik) eta fedea praktikatzeko dutenen fede hori elikatu eta honi eustea, eta fedea praktikatzeko ez dutenen aurrean edota honekiko hotz direnen aurrean, testigu izatea.

2.- Parrokia subjektu da fedearen **ospakizunean**. Iganderoko Eukaristia, edota hau ez dagoenean apaizik gabeko edo apaizaren zain dagoen ospakizun baimendua, dira parroki bizitzaren muina. Parrokia da sakramentuak ospatzen diren berezko lekua, bai eta hiletak eta parrokiko festak ere.

3.-Parrokia **barne senidetasun eta kanpo solidaritatearen gunea** da. Pertsonen arteko harremanak landu behar dira. Honek elkartearen sortzen du. Bestalde, karitatearen zerbitzurako ekintzak, gaixoak bisitatzea eta zailtasunetan dauden familiei laguntzea, besteak beste, nahitaezko dira parrokiaren oinarritzko lanaren zerrendan.

4.-Parrokia **sinodala** da eta ondorioz, **ardurakidetzaren edo korresponsabilitatearen** landu behar du. Parrokia guztietan behar da Pastoral Kontseilu murriztua, edota Parrokiko Junta. Bere ardurapean izango da pastoral egitasmo xume bat. Bere gain izango da baita ere parrokiko ekonomia, tenplua zaintzea, artxiboa, eta baleude, beste lan administratiboak ere bai.

5-Parrokia da pastoral antolaketaren lehen instantzia, bere lanerako proiektua eratzeko duena, nahiz eta xumea izan, eta bere errealitatearen neurria egina, eta Elizbarrutiko orientabideak kontuan dituena.

#### *OHARRAK:*

Egoerak aztertu behar ditugu. Elkarte txikia eukaristia ospatzeko biltzen bada eta ez badu uzten alde batera karitate eta ebanjelizatze alderdia jo dezakegu parrokia dela. Hurbiltasuna, presentzia eta atea irekitzea (bere seme-alaben artean bizi den Eliza) balora genezake.

Hilean behin ere eukaristia ospatzera biltzeko gai ez bagara, hor ez dago parrokia elkarterik.

Ibilbide honetan elkarteek elkarteen artean laguntzen ikasi behar dute.

## 2.- PASTORAL ZONALDE EDO BARRUTIA

---

- Garai batetik hona gure artean Pastoral Zonalde eta Barrutiak sortzen joan dira... Agerian uzten dute... parrokiak lurraldearekin duen harremanean ematen ari den aldaketa mantsoa, parrokiak gaineko esparruan pastoral zerbitzuak ematea ugaritzen ari dela (eta) ministeritza era berriak eta legezkoak agertzea... Honela eratuak... Parrokiak deituak daude gotzainak deitutako “elkarte misiolari” erangikorak elkarrekin osatzera, parroki ezberdinez osatuak, eta lurralde mugatu batean lan egiten dutenak, Elizbarrutiko pastoral egitarauakin batera. (Etorkin Pastoralzarako Aita Santuaren Batzordea).
- Orogen gainera, parroki multzoak (“pastoral barruti” deituak), ahalik eta modu homogeneoan mugatzea komeni da, baita ikuspegi soziologiko bati dagokionez ere, benetako pastoral bateratua egin ahal izateko, misiolari ikuspegi batez (Instrucción “La conversión pastoral de la comunidad parroquial al servicio de la misión evangelizadora de la Iglesia a cargo de la Congregación para el Clero”, n 55)). 20.07.2020

### **Pastoral Zonalde edo Barrutiaren izaera.**


Pastoral Zonalde edo Barrutia, gure elizbarrutian, lurralde nahiko homogeen eta jarraia da, eremu horretan dauden zenbait parrokia, elkarte, erlijioso/en erakunde, talde eta mugimendu bere baitan hartzen dituenak. Eliz errealtate hauek guztiak pastoral proiektu bateratu baten inguruan biltzen dira, eta arduradun talde anitz batek koordinatzen ditu, gotzainak izendatutako apaiz batek presiditzen duena.

## II. HASIERAKO TALDEAREN BILERAREN NONDIK NORAKOAK

Parrokiaren inguruan taldeko lana egitea proposatzen dugu, eta ondoren, parrokiaren eta pastoral zonalde edo barrutiaren inguruko galdera batzuk.

### **1.Parrokia**

Moderatzaileak eta idazkariak paper handi bat edo arbela prestatuko dute, fitxa honetan ageri den antzeko irudi batekin. Bilerako partaideek beren parrokiaren ezaugarriak buruz idatziko dute: ebanjelizazio alderdia, ospakizunak, elkartasuna, proiektua, ardurakidetzak edo korresponsabilitatea. Elementu hauetako bakoitzean, hiru galderei erantzun diezaiekete: nola gaude? zertan lan egin beharko genuke? Zein laguntza eskatu beharko genituzke?



-Ondoren, galdera honi erantzun diezaioketue: nola imajinatzen dut nire parrokia bost urte barru?

-Nire parrokia kristau elkarte autonomo gisa imajinatzen dut, hau da, parroki bati dagozkiola esan dugun ezaugarri guztiak betez? Edota parrokia batean integratutako kristau elkarte gisa imajinatzen dut, zeinarekin sinergiak sortuko diren eta parrokia horren pastoral zaintza jasoko duen?

## 2. Pastoral zonalde edo barrutia

-Zein pastoral zonalde edo barrutitan ikusten duzu zeure parrokia txertatua?

-Zer eskainiko zenukete pastoral zonalde edo barruti horretan? Zer jasotzea gustatuko litzaizuke?